

Informazio Sistemak taldeak blog bat sortu du, informazioa partekatzeko

2009/10/19

Mondragon Unibertsitateko Informazio Sistemak blog bat sortu dute: "MU - Informazio sistemak". Egileen hitzetan, proiektu hau abiatu da bizitza eta lana errazteko, eta komunikazioa du jomuga. Izan ere, erreminta hau sortu da informazioaren joan-etorria hobetzeko.

Mondragon Unibertsitateak badu talde bat, Informazio Sistemak izenekoa, **sei lagunek osatua**: Ana Altuna, Iñigo Cendegui, Ibai Jurado, Mikel Kortabarria, Arantxa Manterola eta Eduardo Sanchez. **Denak informatikariak** dira, eta beren lana da informatika eta Internet kontuak ondo joan daitezela unibertsitate osoan. Lan nekeza, inondik ere, bi esparru horiek gero eta konplexuagoak baitira, eta gero eta jende gehiago erabiltzen baititu.

Lan hori errazagoa egite aldera, taldeak bloga sortu du, Wordpress plataforma erabilita: "MU - Informazio Sistemak". Egileek eurek aitortu dutenez, blogaren bidez partekatu nahi dute informazio interesgarria, unibertsitate barrukoa zein kanpoko, eta, partekatu ere, unibertsitate barruko zein kanpoko jendearekin.

Oraingoz **bi hizkuntza** erabili dituzte blogean, euskara eta gaztelania. Atalei dagokienez, berriz, **zazpi atal ditu**: euskara, Internet, Moodle, OS, Outlook, sailkatugabeak eta segurtasuna. Egileek garbi utzi dute gustura hartuko dituztela kolaborazioak.



« Cienno mover los mensajes literales en Outlook
Euskarabiz, #Zazpikak eratzeko Firefox-en gelagari potentzia »

04 Zure ordenagailua euskaratu ezazu

04 Zure ordenagailua euskaratu ezazu

Gure eguneroko bizitzan denbora asko ematen dugu lanean, horiaz, euskaraz lizi nahi izan ezkerio euskaraz lan egitea auzungarria nabarmen bat izan daiteke. Hain zuzen, ordenagailu aurrean dihardugunonkat, programen erabiltzaile-entzuzak euskaraz izatea lagungarria izan daiguke.